

HASIERAKO FROGA

IZEN ABIZENAK: _____

DATA: _____



EUSKALDUN BAT MARTEN

Iñaki Zubeldia.

Zarauzko kai txikian haurrak jolasean eta igeri zebiltzan. Arratsalde argia zen, eguzkiz betea. Itsasoa bare-bare zegoen, txalupa zuri, gorri, urdin eta orlegien tantoz ziprztindua. Unai, ume azkar eta jatorra, beste umeen artean zebilen murgilka eta igeri. Hamar urte zituen Unaik eta benetan ausarta eta kementsua zen.

Arratsalde baketsu hartan, une batean soinu berezi bat entzun zen Santa Barbara mendi gainean, eta geroxeago argi distiratsu eta itsugarri bat jaitsi zen goitik behera.

Lehenbizi, haurrak izutu egin ziren, baina ondo begiratu ondoren, *ovni* eder bat ikusi zuten Santa Barbara gainean.

Hegazkin hura ikusteko gogoari ezin eutsiz, Zarauzko haurrak saltoka eta arinka joan ziren aldapan gora. Tontorrera igo bezain laster, gizon txiki-txikiak ikusi zituzten: Marteko gizonak ziren, bi urteko edozein haur baino txikiagoak.

Zarauzko haurrak ikusterakoan, beldurtu egin ziren martetarrak, Lurrean hain gizon handiak aurkitu zituztelakoan. Benetako gizonak azaldu izan balira, laster hanka egingo zuketena beren Marte aldera.

Hamar gizon ziren hegazkinetik jaitsi eta haurrengana inguratu zirenak. Eta haietako batek haurrei hitz egin zien:

- *Mijail jolko xirono ahahu klunki.*

Eta Zarauzko haurrek elkarri begiratzen zioten eta hitzik ere ez zuten esaten harriturik.

Orduan beste martetar batek hitz egin zuen:

- *Tziboski mirurkajaine milmi parotxo...*

Haur haiek ez zuten ezertxo ere ulertzen, eta ez zekiten zer egin.

Halako batean, Unai irten haur taldetik aurrera eta honela esan zien:

- Kaixo, mutiltxoak, arratsalde on! Zuetako inork ez al daki euskaraz?

Martetarrek hamar hizkuntza ezberdinetako gizonak bidali zituzten, eta zorionez haietako batek euskara bazekien. Laster asko erantzun zion Unairi:

- Arratsalde on, lurreko gizon handiak! Nik euskaraz egiten dut zuek bezala eta Zorrotz dut izena. Gu Martekoak gara eta bake asmotan etorri gara, zuekin bakea eta adiskidetasuna izateko gogoz. Gure Marte oso ederra da, baina ikusten dudanez zuen lurralde hau ederragoa da. Benetan toki zoragarrian bizi zarete.

Unaik, pozez gainezka, honela erantzun zion:

- Gu zuen lagunak gara, Zorrotz, eta gure artean bakea izango duzue. Eta zerbaiten beharrik baduzue, eskatu, eta guk ahal dugun neurrian lagunduko dizuegu.

- *Hamaika* esker zuei, borondate onagatik, baina oraingo honetan proban etorri gara, eta hemengo gauza batzuk bildu eta Martera eraman behar ditugu laster.



Zarauzko haur talde hark pozik lagundu zien martetarrei adarrak, hostoak, igaliak, lurra eta harri koskorak biltzen. Eta lana bukatutakoan, haur guztiak hegazkina ikusten eta miatzen saiatu ziren. Bai polita zela barrendik eta kanpotik!.

Hegazkina ikusi ondoren, Zorrotzek -Marteko euskaldunak- honela hitz egin zien:


- Oraingo z gure lana bukatu da eta Martera goaz. Baina zuetako bat pozik eramango genuke gurekin. Han ahal den ondoen urte bete pasarazten saiatuko ginateke. Ba al da inor gurekin joan nahi duenik?...

Zorrotz txikiaren galdera erantzunik gabe geratu zen. Haur guztiak elkarri begira jarri ziren. Hegazkina polita zen eta han oso ondo ibiliko zen ortzian zehar, baina gurasoengandik urrutira joan beharrak beldurtu egiten zituen.

Baina, halako batean, Unai beti ausart eta adoretzu, honela mintzatu zen isiltasun astun hura hautsiz:

- Ni joango naiz zuekin, baina hemendik urte betera berriro etortzekotan eh!, gero nire etxean bizi nahi dut eta.

- Bai, gizona, bai, han urte bete ederki pasako duzu eta gero lur eder honetara ekarriko zaitugu.



1. Nork kontatzen du ipuin hau? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

☐	Zorrotzek
☐	Unak
☐	Narratzaileak
☐	Hegazkinak

2. Zertan ari ziren Zarauzko kaian haurrak? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

☐	Zinera joaten
☐	Mendira igotzen
☐	Jolasean eta igeriketan
☐	Arrantzan eta kaniketan

3. Irakurri ondorengo hiru esaldiak eta esan zeinek adierazten duen hobekien ipuinaren ideia nagusia: (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

☐	• Unai mutiko ausarta da eta Martetarren hizkuntza menderatzen duenez haiekin joaten da.
☐	• Martetar batzuk heltzen dira Zarautzera, eta Unai gonbidatzen dute haiekin Martera joatera.
☐	• Unai uste du Marte Lurra baino politagoa dela eta hara joaten da bisitan.

4. Ordena itzazu ipuinaren pasarte hauek denboraren arabera: (1. 2. 3. 4.)

☐	• Arratsalde on, lurreko gizon handiak!
☐	• Oraingoz gure lana bukatu da eta Martera goaz.
☐	• Une batean soinu berezi bat entzun zen Santa Barbara mendi gainean.
☐	• Hamar gizon ziren hegazkinetatik jaitsi eta haurrengana inguratu zirenak.

5 . Zorrotzek honela dio: "...bake asmotan etorri gara..." Zer esan nahi du horrek? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

Herrian zegoen gerrarekin amaitu nahi zutela.

Bake izeneko emakumea ekartzen zutela haiekin.

Inori kalte egiteko asmorik ez zutela.

Martetik diru asko ekartzen zutela.

6 . Zer kontatzen da istorio honetan? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

Zarauzko herria **deskribatzen du** zehatz-mehatz.

Martetarrak Lurrera zergatik etorri diren **argudiatzen du**.

Haurren eta martetarren arteko topaketa nola ematen den **kontatzen du**.

Martetarrek eraman behar dituzten gauzak **zerrendatzen ditu**.

7 .- Unai martetarrei ea inork euskaraz egiten zuen galdetu zien. Horietako batek bazekien. Horrek, "Laster asko erantzun zion Unairi" Esaldi hori berdin geldituko litzateke **LASTER ASKO** jarri ordez hauetako bat jarrita: (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

Modu horretan

Berehala

Une hartan

Garai honetan